BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4810

EBAZPENA, 2026ko urriaren 28koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez ematen baititu ondorengo instalazioa gauzatu aurretiko eta eraikitzeko administrazio-baimenak: Altzo, Alegia eta Tolosako udal-mugarteetan (Gipuzkoa), 9001 eta 9013 euskarrien artean, Altzo-Bidania, 30 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoa berritzeko proiektua, i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. enpresak sustatua.

Espedientea: 20-AT-Y-2025-133.

AURREKARIAK

1.– 2025eko irailaren 24an, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. enpresak aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zituen, eta Altzo, Alegia eta Tolosako (Gipuzkoa) udalerrietan Altzo-Bidania z/bik 30 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoak 9001 eta 9013 euskarrien artean berritzeko proiektua aurkeztu zuen, José Antonio Martínez Gómezek izenpetua.

2.– Proiektua Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.E eranskinean jasota dago, eta, beraz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurari lotuta dago. Horrenbestez, Lurralde Ordezkaritza honek, 2025eko urriaren 28an, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikuluan ezarritako ingurumen-dokumentazioa aurkezteko eskatu zion i-DE, Redes Eléctrica Inteligentes S.A.U. enpresari.

3.– 2025eko abenduaren 15ean, Lurralde Ordezkaritza honek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari bidali zion erreferentziako proiektuari dagokion ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren eskaera, proiektu teknikoarekin eta lotutako ingurumen-dokumentazioarekin batera, eta espedienteari EIAS-376 erreferentzia esleitu zitzaion.

4.– 2026ko abuztuaren 13an, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez, «Altzo-Bidania 30 kV-eko aireko linea egokitzea, 9001. eta 9013. euskarrien artean, linearen hornidura hobetzeko Altzo, Alegia eta Tolosa udal-mugarteetan (Gipuzkoa)» izeneko zirkuitu bikoitzeko 30 kV-eko aireko eta lurpeko linea elektrikoko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena egin zen. Proiektua i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. enpresak sustatu zuen, eta 2026ko irailaren 11ko EHAAn argitaratu zen.

Ingurumen-inpaktuari buruzko txosten horrek ondorioztatzen du ez dela beharrezkoa proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura aplikatzea, betiere txosten horretan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta kontrolak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proiektuan proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira.

5.– 2026ko irailaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak organo honi bidali zion Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2026ko abuztuaren 31n emandako txostena, erreferentziako proiektuari buruzkoa (Erref.: ICA_20_2026_00000009_0001EIAS).

6.– Ingurumen-inpaktuaren txostena eta KKHarena i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. enpresari bidali ondoren, enpresa honek, 2026ko urriaren 23an, baieztatu du proiektuak ingu-

rumen-organoak ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumen-jarraipenerako kontrolak jasoko dituela, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2026ko abuztuaren 13ko Ebazpenean (2026ko irailaren 11ko EHAA) aurreikusitakoa betetzeko, bai eta CHEren 2026ko abuztuaren 31ko txostenean ezarritakoa ere.

Ebazpen hau honako hauetan oinarritzen da:

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Gipuzkoako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetu eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– Espedientean bete dira Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean, Energia elektrikoaren instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan eta horiekin bat datozen gainerako legeetan agindutako arauzko izapideak.

3.– Aplikatzekoak dira Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurari eta haren emaitzak baimen honetan sartzeari dagokienez. 10/2021 Legearen 79.1 artikuluaren arabera, ingurumen-inpaktuaren txostena loteslea da, eta, beraz, bertan ezarritako guztia nahitaez bete beharko da proiektua gauzatzean.

4.– Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-organoak kontsulta egin behar die eragindako administrazio publikoei eta interesdunei, eta erregelamenduz ezarritako epean eman beharko dute iritzia. Epe hori igaro eta adierazpenik jaso ez bada, prozedurak aurrera egingo du ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu, eta ez dira kontuan hartu behar geroago jasotzen diren erabakiak.

Aipatutako lege-manuak eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, eta Ordezkaritza honetako Energia Arloak egindako proposamenarekin bat etorriz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariak honako hau

EBAZTEN DU:

Aldez aurreko administrazio- eta eraikuntza-baimena ematea i-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. enpresari, Altzo, Alegia eta Tolosako (Gipuzkoa) udalerrietan Altzo-Bidania z/bik 30 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoak 9001 eta 9013 euskarrien artean berritzeko proiekturako.

Ebazpen hau martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren eta honako baldintza orokor hauen arabera ematen da:

1.– Onartutako proiektuaren arabera egin beharko dira obrak, hala badagokio, eskatzen eta baimentzen diren aldaketekin.

2.– Proiektuak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan, 2026ko abuztuaren 13ko Ingurumen Inpaktuaren Txostenean (2026ko irailaren 11ko EHAA) ezarritako baldintzak bete

beharko ditu. Baldintza horiek ebazpen honen parte dira. Zehazki, eta laburbilduta, txosten horretan ezarritako neurri hauek hartu beharko dira:

– Natura-ondarea babesteko neurriak.

– Uholde-arriskua txikiagotzeko eta jabari publiko hidraulikoa babesteko neurriak.

– Urak eta lurzoruak babesteko neurriak.

– Paisaia babesteko eta eragindako azalerak lehengoratzeko neurriak.

– Zaraten eta bibrazioen ondorioak minimizatzeko neurriak.

– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak kudeatzeko neurriak.

– Airearen kutsadura minimizatzeko neurriak.

– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

– Jardunbide egokien sistema bat ezartzea.

– Garbiketa eta obra-akabera.

– Ingurumen-aholkularitza.

Halaber, kontsulta-fasean administrazioek, organismoek eta enpresek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko ditu, eta sustatzaileak horiekiko adostasuna adierazi du.

3.– Martxan jartzeko epea BI urtekoa izango da, ebazpen honen datatik aurrera. Epe hori igaro eta instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu ez bada, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

4.– Instalazioen titularrak lanen amaieraren berri emango dio Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari, behin betiko aintzatespena egin eta martxan jartzeko akta egin dezan.

5.– Ebazpen hau ematen da obrak egiteko beharrezkoak diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentzien eta bestelakoen kaltetan izan gabe, eta horiek eskuratzeko betebeharretik ez du salbuesten eskatzailea. Halaber, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita ematen da.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Jarritako errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, gora jotzeko errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da.

Donostia, 2026ko urriaren 28a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
ANTTON ARRIETA INSAUSTI.